



## **Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak VOX alderdiaren jokaera antidemokratikoa gogor salatzen dute**

KEE-CVP-k eta EKE-AVP-k VOX alderdiak zenbait hedabideei informatzeko eskubidea askatasunez ez uztea gaitzesten dute.

EAEko kazetaritza arloko bi erakunde profesional nagusiek EITB taldeko telebista zein irrati kateak hauteskunde gauari jarraipena egiteko Santiago Abascal buru duen alderdiak jarritako betoa salatu nahi dute.

Alderdi ultra-eskuindarrak Madrilgo hotel ezagun batean egingo du hauteskunde gaueko jarraipena. Bertara hedabideak gonbidatu dituzte eta 80 komunikabide akreditatu ditu Santiago Abascal buru duen alderdiak. Akreditazio horietatik kanpo laga ditu EITB taldeko telebista zein irrati kateak, Galiziako irrati telebistakoak eta modu berean irrati-telebista katalanekoak, beste zenbait hedabideen artean.

Aipatutako hedabideek alderdiak markatutako epeen barruan aurkeztu zituzten beraien eskaerak eta alderdiak markatutako irizpide guztiak betetzen zituzten, baina hori ez da nahikoa izan.

KEEk eta EKEk garbi adierazi nahi dute VOXen jokabidea demokraziaren irizpideen aurka doala. Izan ere, informazio eskubidea herritarren oinarrizko eskubidea da eta Espainiar Konstituzio bertan jasota dago, modu berean jasota dago libreki informatzeko eskubidea hedabideei dagokionez; eta hor kazetari profesionalen garrantzia eta beharra.

Horrelako erabakiekin Abascal alderdiak manipulaziorako joera eta "beraien" kontrako iritziak izan ditzaketzen hedabideak alboratzeko erabakia markatzen dute berriro; orain arte beste zenbait kasuetan erakutsi moduan, La Sextaren kasuan esaterako.

Gaurko komunikatuan aipatutako kateen kasua, gainera, bereziki azpimarragarria da; izan ere, estatuko hizkuntza koofizialetan informazioa zabaltzen duten hedabide-talde nagusiak direlako eta irrati zein telebista publikoak direlako.

Dena den, VOX alderdiaren erabakiak ez die bakarrik euskal, katalan eta talde gailegoari eragiten, Europa Press eta beste zenbait hedabide eta albiste agentzia ere akreditatu gabe laga dituzte. KEEK eta EAEK babesa luzatu nahi die kaltetuak izan diren komunikabide eta profesionalei.

VOX alderdiari gogoratu nahi diote, EAEko kazetaritza arloko bi erakunde profesional nagusiek, gizartea libreki informatzeko eta iritzi publikoa eraikitzen laguntzeko informazioa zabaltzea oinarrizko eskubide demokratikoa dela eta jarrera autoritario eta antidemokratikoetan aurre izango dituztela.